

ROLLFORM 09 Kongresua

2009/09/23

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak, Labein-ekin batera, ROLLFORM 09 nazioarteko kongresua antolatu du txapa profilaketari buruz.

Helburu nagusia unibertsitateetan, zentro teknologikoetan eta enpresetan profilaketaren bidez egiten den txaparen eraldaketari buruz dagoen jakintza trukatzea da eta arlo horretan egiten diren aurrerapen guztiak jakitera ematea. Zehatz-mehatz hauek izango dira aztertuko diren gaiak:

- . Profilaketa aldakorra edo sekzio aldakordun profilaketa.
- . Profilaketa prozesuaren simulazio numerikoa.
- . Profilatzeko makinen kontrola.
- . Material aurreratuak.
- . Operazio osagarriak.
- . Aplikazio berriak.

Kongresua Bilbon izango da, Euskalduna jauregian, urriaren 14 eta 15ean.

Ekitaldiak PROFORM “*An innovative manufacture process concept for a flexible and cost effective production of the vehicle body in white: Profile Forming*” proiektuaren emaitzak ezagutzera emateko balioko du.

Gainera, Labeineko laborategiak bisitatzeko aukera egongo da eta bisita horretan azken 3 urteotan proiektu honen esparruan garatu den profilaketa malgua lerroaren aurkezpena egingo da. Mondragon Goi Eskola Politeknikoak eta Labeinek parte hartu dute lerro honen eraketan.

Informazio gehiago nahi izanez gero www.labein.es/rollform helbidean duzue.

